

Liburuak

KRITIKA

Elurte bateko ipuinak.

Pako Aristi; Manu Ortega (irudiak).

Erein.

10 urtetik aurrera. 90 orrialde. 12 euro.



Haur eta gazte literatura

Manu López Gaseni

Autofikzioa haurrentzat

BERRIRO ETORRI ZAIGU Pako Aristi haur literaturaren plazara, oraingoan “haur literatura” terminoaren bi zentzuetan: haurrentzat egindako literatura eta haurrek egindako literatura. Izan ere, liburu hau Intxaurrendoko Ikastolako hamaika urteko haurrekin lankidetzan idatzia izan da. Idazleek egin ohi dituzten bisita horietako batean, ikastolako haurrek beraiei buruzko liburu bat idaztea eskatu omen zioten Aristiri. Pixka batean pentsatu eta gero, baietz esan zuen, baina horretarako ipuintxo bana bidali beharko zioten, idazleak haien berri zehatzagoa izateko. Ipuin haiek guztiak bildu, eta fikziozko hari argumental batean txertatu zituen Pako Aristik. Azken emaitza *Elurte bateko ipuinak* izan da.

Liburuak ahots askotako *Mila gau eta bat gehiago* delakoaren antza hartu du, halako bertso posmoderno batean. Espazio-deborako koordenadak gora-behera, istorioa oso ezaguna egingo zaio bati baino gehiagori: Pako Aristi izeneko idazle bat, eskola-bisita batzuk egin ondoren, Galiziara abiatu da bere maitearekin egotera. Bidean, ordea, izugarri gaiztotu zaio eguraldia, elurak autopistako auto guztiak geldiarazteraino. Orduan poliziak inguruko polikiroldegi batera eraman ditu autoetako lagun guztiak, bertan gaua eman dezaten. Halabeharrez, Intxaurrendoko ikastolako haurrak Peñiscollara eraman behar zituen autobusa ere butxadura berean suertatu da, eta haurrek Pako Aristi ezagutu dutenean han hasi dira kontu kontari ia gau osoan zehar.

Halaxe da, bai; aspaldi honetan autofikzioa boladan dago, nonbait. Haurrentzako autofikzioa, oraingoan.

“Primerako idazle jator guai guapoak”, baina, ezin du ahaztu bere zeregin didaktikoa, eta umeez istoriotxoak kontatu ahala “ipuinak idazten ikasteko dekalogoia” aletzen joango da, Platon eta haren jarraitzaileen artekoa gogora dakarren harreman dialogikoa.


Kontrapuntu gisa edo, liburuaren amaiera aldean Aristiren alderdi arau-hauslea agertu da, eta gaur egun (zoritxarrez) gero eta argitaldari gutxiagok onartuko luketen egoera konprometitu samar batean sartu ditu Intxaurrendoko haurrak, irakurlearen pozerako.

Haurrek kontatutako istorio eta pasadizo ugariak ondo josita geratu dira egileak hartarako asmatutako uztaian, eta liburuak emaitza orijinala da zalantzarik gabe.

Ondoegi lotu gabe geratutako zenbait hari, eta baita zuzenketa faltan dauden zenbait pasarte badira ere, oro har, osotasunaren irudia oso balekoa da. ■

Lisboako hilketak Jon Arretxeren lan berrian

Prostituta zaharrak, jonkiak, eskaleak, arloteak... denak ari dira hilda agertzen Lisboan. Norbait dabil hiriko bazter ilunetara “garbitu” nahian. Baina hildako horien artean Mariza ere azalduko da, eta horrek hiltzailea bilatzera bultzatuko du Mario Barbosa. Polizia ohia, fado kantaria, Barbosa da Jon Arretxeren nobela berriko



Fatum.
Jon Arretxe.
Elkar.
142 orrialde.
11,80 euro.

protagonista. Barbosa, eta Lisboa bera, hiriak protagonismo handia hartuko baitu kontakizunean, ia beste pertsonaia bat bihurtzeraino. Portugalgo hiriko kale estuenean, aldapetan, tranbietan... Barbosak hiltzailea bilatuko du deskantsurik gabe. *Morto Vivacerekin* irekitako bideari jarraitu dio Arretxek lan honekin. ■

2007ko euskal liburugintzaren analisisia

Urtero argitaratu ohi du Joan Mari Torreldaik euskal liburugintzari buruzko bere analisisia. Aurten ere iritsi da momentua, eta horregatik, *Jakin* aldizkariaren 170. zenbakiak lekua eman dio ikergai horri. 2007ko euskal liburugintzaren datu bilduma eta analisi xehea eskaini ditu Torreldaik zenbaki honetan, hainbat grafikoz lagunduta, eta egilearen komentarioz jantzia. Horrez gain, zenbaki honetan Martin Ugalde zenaren lan idatzien katalogoa osatu du *Jakineko* lantaldeak. Hori gutxi balitz, Pruden

Gartziak Lazarragari buruzko artikulua idatzi du zenbakia ixteko. ■



Jakin 170.
Batzuen artean.
Jakin.
129 orrialde.
9,95 euro.